


HONDARRIBIA: ESTRAPERLOA ETA KONTRABANDOA



Map data: ©2022 Google / Badihardugu Euskara Elkarte

1936ko gerra amaitu zenean,
gose urteak etorri ziren.

Elikagaiak kontrolatzeko
neurriak hartu ziren
eta horrek kontrabandoa
ekarri zuen: jakiak isilpean
erosi eta saltzea.

Hainbat trikimailu asmatu
zituzten herritarrek, poliziaren
kontrolari izkin egiteko.

Gerrako Ahotsak
proiektuan jasotako
ahozko testigantzetan oinarritua.



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



1 GERRAOSTEKO GOSEA HONDARRIBIN



Lekukoa: Joxe Miguel Elduaien

Gerra ondorengo miseria. Errazionamendua. Lenteja txarra, harriz josia. Ogia eta taloak. Hendaiara joaten zen ogi zuri bila, batelarekin. Ezkutuan azukrea ekarri, eta saldu egiten zuten. Sakarina. Kontrabandoarekin dirua egiten zuten batzuek.

2 VENTAS-EN KONTROLA



Lekukoa: Bittor Galarza

Kontrabandoa angulekin. Ventasen zegoen kontrola. Gaintxurisketako Martinen kontuak: sakarina zakua pasatu zueneko.

3 PORTU ZAHARRA



Lekukoa: Maria Angeles Elduaien

Azukrea eta kafea bestaldetik ekartzen zituzten, kontrabandoan. Batelez joaten ziren, eta gona azpian gordetzen zuten. Ogia ere bai, zuria. Frankoetan ordaintzen zuten; dirua nola lortzen zuten. Kontrabandistak. Aitak irratia ekarri zuen, txokolatea trukatuta.

4 EROSKETAK NAGUSI KALEAN



Lekukoa: Carmen Gonzalez

Gerra ondoko errazionamendua. Kale nagusian erosten zituzten gauzak. Goserik ez zuten pasatu. Ogia. Militarrek saldu egiten zuten. Estraperloko olio.

5 JAIZKIBELERA ETA ARROKETARA KONTRABANDOAN



Lekukoa: Fermin Larrarte

200 pezeta ordaintzen zuten kontrabando lana egiteagatik. Santa Engraziatik Jaizkibelera Igo, eta handik arroketa. Paketeak non gordetzen zituzten: iratze eta inaurkin artean.

6 ETXEAN KONTRABANDOA GORDETZEKO EZKUTALEKUAK



Lekukoa: Fermin Larrarte

Etxean tranpak zituzten eginda paketeak gordetzeko. Zuloa (tunel bat) armairu batekin estaltzen zuten.

7 HEGOALDEKO ARRANTZALEEN ARRAINA HENDAIA SALTZEN



Lekukoa: Andoni Etxarri

Hendaiako arrantzaleak itsasora irteten ziren, itsasoan Hegoaldeko arrantzaleei arraina erosi eta barkua kargatutakoan Hendaian saltzen zuten. Andoniren aitak kaierak izaten zituen kontu haiek eramateko; behin polizia etxea miatzera etorri zen...

8 OGI ZURIA HENDAIA SALTZEN ZEN



Lekukoa: Tere Elizazu

Errazionamendua. Kartilarekin joaten zen ama dendara. Ogia nolakoa zen. Hendaiara joaten ziren ogi zuri bila. Olio osabak ekartzen zuen, eta komunean ezkutatzeko zuten.

KONTRABANDOAREN ARRISKUAK



Lekukoa: Andoni Etxarri

Aita hainbat gauzarekin aritzen zen kontrabandoan eta oso arriskutsua izaten zen batzuetan. Mugan kontrabandoak zer norabide izaten zituen azaltzen du. Behin ibaian igerian zebilen emakume bati guardia zibilek tiro egin zioten ihesi zebilelakoan.



testigantzak entzun

